



KANPANZAR— ELORREGI (6. etapa)

- **0:00** Kanpanzar gaineko tabernaren ostean ekingo diogu gaurko ibilaldiari. Zelaitxueta baserrirako bideak erakusten digun geziaren parean aurkituko dugu gaurko lehen harri puska.

3. mugarria, "Kanpanzar" izenekoa; harlandu laukizuzena, jurguaren norabidea ere ematen diguna eta Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa. Hau ere Diputazioaren plaka batekin. Bitxikeria bat: mugarri hau ipini zen garaian inguru hauek (Angiozar osoa bezala) Elgetakoak ziren eta ez Bergarakoak; horregatik ez da Bergara hitza azaltzen.

- Hango porlanezko pistatik behera, markatutako Zelaitxueta aldera abentatuko gara.
- **0:05** "Paso Amerikano" baten parean eta honen ezkerrean, porlanezko zabalgunean, mugarri bat aurkituko dugu.

2. mugarria, "Zelaitxo" izenekoa; harlandu laukizuzena, jurguaren norabidea ere ematen diguna eta Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa. Hau ere Diputazioaren plaka batekin. Bitxikeria bat: mugarri hau ipini zen garaian inguru hauek (Angiozar osoa bezala) Elgetakoak ziren eta ez Bergarakoak; horregatik ez da Bergara hitza azaltzen.

- Mugarriak berak jurguaren norabidea markatzen du. Noranzko hori hartu eta bide baztarreko hormatxoa gainetik pasatuko dugu, zelaian behera egingo dugu errekarantz, pago eta haritzen artean, gure eskuma aldean itxitura bat daramagularik.
- Alanbre hesi bat gainetik pasatu, zelai bazterretik joanda, Epele errekaraino juango gara, non beste mugarri eder bat topatuko dugun.

1. mugarria, "Aistilaua" izenekoa; harlandu trianguluarra, jurguaren norabidea ere ematen diguna eta hiru herrien izenak ere (Mondragon, Elorrio, Elgeta) oso-osorik idatzita dituena. Hau dugu Bizkaiarekiko azken mugarria, eta Diputazioaren plaka ezarrita dauka.

Mugarri hau ere, Angiozar auzoa Elgetako sailen barruan zegoen sasoian jarritakoa da.

Hemendik behera, Epele errekaratik markatzen dau Bergara eta Arrasate arteko jurgua, Artxubiraino ("Epele" rotonda).

- Mugarria atzean lagata, errekararen paralelo joango gara beherantz (eki aldera), zelai bazterretik orain ere. Gaineko aldean Zelaitxueta etxea daukagu eta erreka bestekaldean Sara berri baserriaren hormak ikusiko ditugu. Argi poste baten aldamenetik pasatuko gara eta zelaia zeharkatuko dugu, beste ertzearaino. Basora iritsita,

itxitura pasatu eta bat egingo dugu Zelaitxuetatik datorren bidearekin eta Epele errekarara helduko gara.

- **0:25** Errekaren beste aldean, bidea ekialderantz segituz, Sarazar baserri osterira iritsiko gara, gaur egun jatetxe bat daukana.
- Sarazar baserria baino 100bat mt lehenago, ezkerretik basoan sartzen dan bide zikin bat hartu eta basotik zehar jarraituta errekaraino, lehenago mugarri bat zegoen lekuraino helduko gara.

115. mugarria, "Arriandi" izeneko mugarria ezkerreko eskonbrerako betelanen azpikaldian omen dago, Epele erreka tunelien sartzen dan inguruan.

Epele erreka hor ikusten den betelanaren azpitik doa, eta tunel batetik zeharkatzen dau errepidearen azpitik.

Hemendik irtetzeko, edo etorri garen bidetik bueltatuko gara Sarazar baserriraino, edo erreka bestekaldean dagoen eskonbrerako mugatik gora egingo dogu, gainetik doian bidea hartu eta eskumakaldera hartuta Sarazar aldera joateko.

- **0:30** Sarazar baserriaren hormaren ertzean errepidera joan beharrean ezkerretara hartuko dugu, pista zabal batetik Gongeta baserri aldera, orain ipar aldera. Pistaren beheanzko aldapa bukatzen den tokian, gure eskumatik bide bat irteten da ekialdera, izeien bazterretik, errepide azpitik pasatzen dan tunelaren billa.
- Tuneletik GI-632 errepidearen azpitik azpitik pasatuko dugu, eta irten ondoren ezkerreko bidea beheantz jarraituko dugu, Epele errekararen bila. Aurrerago gure ezkerretik erreka azalduko zaigu tunelaren barrutik.
- Hemendik aurrera errekararen ondotik, haren eskuma aldetik jarraituko dugu. Zubi batetik pasa eta errekararen beste aldetik jarraituko dugu beheantz, errepideko muga eta errekararen artean, galbiderik gabe, pista zabal batetik.
- Aurrerago, bide gurutze baten, erreka aldera doian bidea aldemenian laga eta ezkerreko bidetik gorantz jarraituko dogu. Pixka bat igo eta berriro beheartz berehala beste bidegurutze batera iritsiko gara.
- **0:45** Hemen, gure ezkerretara tunel bat ikusiko dugu, errepide azpitik pasatu eta Sorginerreka eta Goimendiko errotara eruaten dabena. Hemendik aurrera bi bide dauzkagu:

a)- *Zuzen eta egokiena*: erreka billa doian bidea jarraituko dogu, eta Epele errekatik bertatik joan biharko gara 20bat metroan bi aldiz, edo aldemeneko basotik zehar 100bat mt berriro bidera irten arte. Ondoren erreka ezkerrekaldetik jarraitu eta jausitako Epeleko txabolaren hormen ondotik pasatuko gara. Aurrerago erreka zeharkatu eta eskumakaldetik zati bat egin ondoren, berriro erreka zeharkatu eta ezkerrekaldetik jarraituko dogu gorantz errepide ondora irten arte. Berriro beheartz egin, zubi baten ondotik pasatu eta errepideko "itzulbidea" dagoen leku ondora irtengo gara, Altuna baserriko bidearen bidegurutzera.

b)- Epele errekan *ur haundia doianean*, errepide azpiko tunela zeharkatu biharko dogu, ipar alderuntz, Sorginerrekara, eta bestekaldean pixkat aurrera joanda errepide bertatik datorren hormigoizko kunetatik gora igoko dogu errepideraino.

Ondoren GI-632 errepidearen bazterretik segituko dugu beherantz 800 bat mt., beti bionda metalikotik kanpora, hau eta hormigoizko kuneta edo erreten tartetik, errepidean "itzulbidea" dagoen puntura iritsi arte, eta bertan tuneletik zehar berriro erreka aldera pasatuko gara.

- **1:00** "itzulbidea" dagoen tokian, errepideko biondaren beste aldean, erreka aldean, han dagoen pista zabala hartuko dugu errekan behera, ekialdera. Albo batera erreka eta bestera errepidea daramagula aurrera segituko dugu, Barrenazar baserriraino.
- **1:30** Barrenazar baserriaren aurrera iritsitakoan, ibilbide guztiko toki arriskutsuenera helden gara: GI-632 errepidea zeharkatzeko unera, eta horretarako bi aukera ezberdin dauzkagu:
 - *Lehena.*- Guk proposatzen duguna: baserriaren aurrean gure ezkerreko bide batetik apurtxo bat gorantz egingo dugu, errepidera irteteko. Bionda gaineratik pasatu ondoren (**oso argi!!**) errepideko bi norabideko zatia zeharkatuko dugu, erdialdean dagoen zelaitxo bateraino.

Zelai horren ezkerreko bazterretik jarraituko dugu beherantz eta, ia behean, korapilo honen azkeneko adarra zeharkatuko dugu, errepidearen beste aldera, Bergarako norabidean (iparralderantz) jarraitzeko errepidearen ezkerrekaldetik.
 - *2goa.*- Beste aukera: baserritik aurrera pistatik beherantz jarraitzea da Arrasatera doan errepidera irten arte, Epeleko errotonda handi horren albo batean. Orain Epeleko errotonda horren bazterretik korapilo horretan elkartzen diren errepide-adar guztiak zeharkatzen joan beharko dugu (hemen ere **oso argi!!**), Bergarako norabidea hartu (iparralderantz) eta Bergarako errepidearen ezkerrekaldetik jarraitzeko.

114. mugarría, "Artxubi" izeneko mugarría inguru honetan omen zegoen.

Gaur egun ez da azaltzen. Harlandu laukizuzena omen zen, eta "Bergara" eta "Mondragon" izenak idatzita izateaz gain, "114" eta "2" zenbakiak zeuzkan bere aurpegietan.

Epeleko errotondaren inguruan egin diren obra batzuekin, 2005 urtean, itxura denez, desagertu egin zen mugarrí hori.

- **1:35** Artxubi etxe berrirako bidea zeharkatu eta harrizko horma baten barrenetik jarraituko dugu, errepide bazterretik, ahal dogunean, errepidea zeharkatu eta errepide bestekaldean dagoen bidegorrira heltzeko.
- Bidegorritik aurrera jarraituko dugu, lehenagoko trenbide zaharreko bidetik, Eki-lore loragintza eta Barrena baserri ondotik pasatu, Deba ibaia zubi gaineratik zeharkatuz, eta bidegorritik jarraituko dugu galbiderik gabe Elorregiraino.
- **1:55** Elorregiko borobilerara irtengo gara, eskumako bazterretik jarraitu eta Oñatirako errepide adarra zeharkatuko dugu aurrera ikusiko dugun lehenagoko trenbidearen zubiaren bila, Oñati ibaiaren gaineratik, Tavex S.A. enpresaren gaur eguneko sarrera dana.
- Zubitik pasatu ondoren Oñati aldera jo 100bat metro bidegorritik, erreka ondoan dagoen Iberdrolaren hormigoizko poste baten ondoraino.

Poste horren ondoan, jarri berri dagoen mugarria dago: **113 mugarria "Elorregihandia"** (Oñatiko 1goa.).

- Tavex S.A. enpresaren ezker aldetik jarraituko dugu, gure eskumara "Elorregi-domiñena" baserriaren bidea lagata, eta Elorregiko zubira iritsiko gara. Hemen Elorregizaharra izendako baserriko armariaren ondotik pasatu eta Deba ibaia zubi gainetik igaroko dugu.

Zubiaren erdian, azpialdean, Deba ibaia eta Artixa erreka (Oñati-erreak) urak elkartzen diren erdiko puntuak markatzen du Arrasate, Oñati eta Bergara arteko mugak elkartzen diren puntua (**113.-b**), 1939ko aktan agertzen den bezala.

- **2:00** Elorregiko zuba igaro eta errepidea pasa ondoren, San Prudentzioko elizaren aurrera iritsiko gara, ibilbide honen amaiera.

Bergaran, 2013ko maiatzak 5